

## DONOSTIYA-RI

Zu bezelako erri politik  
 Ez zait aurrian azaltzen,  
 Eta zugandik urrutiyan ni  
 Naiz bakarrik bizitutzen,  
 Nere biotza triste dago, bai,  
 ¿Nola ez da egongo emen  
 Baldiñ ez bada bizi zeranik  
 Edo il zeran aitutzen?

Ai! ¿nun zerade, erri laztatia  
 Urre guztiyen urria,  
 Lore pollita, krabelin gozo,  
 Larros parerik gabia?  
 Aditu zazu zure semien  
 Osoko kantu tristia,  
 Eta, amacho, seme onetzaz  
 Beti oroitu zaitia.

Alde egin nuben ega biziyan  
 Zure amorezko kabitik  
 Utzirikan zu, ama laztana,  
 Gauza abek pensaturik:  
 «Zorion onian atera naiz ni  
 Donostiya-ko zulotik,  
 Libre nago ni, ez det nai ezer  
 Geyago Donostiatik.»

Ara nijua, beti banabill,  
 Emen naiz berriz arkitzen,  
 Gero aruntzago eta aruntzago  
 Zerbaiten billa joaten,  
 Emen aspertu, an gašotutez  
 Nun nai tristura billatzen,  
 Baña zu bezelako chulorik  
 Ez det iñon topatutzen.

Orrela nabill aspaldi ontan  
 Penaz alde guztietan  
 Zugatik, ama, milia galdeera  
 Egiñik toki danetan,  
 Noizpait ate bat billatzen badet  
 Isillik jotzen det dan dan  
 Benturaz andik Donostiyara  
 Laisterka joaten ote dan.

Banan, amacho, zugana orduko  
 Daude egunka atiak,  
 Eta den denak, guzti guztiyak  
 Neretzat daude ichiak,  
 Au oroiturik malkoz betetzen  
 Zaizkite nere bi begiak  
 Eta gorputza biyotzarekiñ  
 Dagoz ezpatez pasiak.

Orchenbezela chorichuaren  
 Kantuak ditut aditzen,  
 Ezkillak eta arbolchuaren  
 Osto ederrak mugitzen.  
 Baña ez dakit zer pasatzen dan  
 Ez, ama, nere barrenen,  
 Gauz abek ere emen, ¡nork esan!  
 Ai!... naute oso tristetzen.

¿Nola choriya egorik gabe  
 Dabill kabitik urruti?  
 ¿Nola barkoa giyari gabe  
 Portura ezin da irichi?  
 Ala nabill ni, paraje abetan,  
 Beti negarrez naiz bizi,  
 Ezin kabirik ez ere kairik  
 Nai izan arren, ikusi.

Aditu zazu, ama laztana,  
 Zure semearen boza  
 Eta izan zazu onentzat bizi  
 Denbora askuan oroitza.  
 Zure amoriyo eder orretan  
 Ez nago oraindik otza  
 Eta argatik bigaltzen dizut  
 Eman zirazun biyotza.

Ekatzu orain laztan aundi bat  
 Ta arnazu magalera,  
 Orchen gozoro iñill-iñillik  
 Jartzen naiz lo egitera,  
 Utziko ditut tristurak eta  
 Negarrak alde batera,  
 Baña, amacho, nik egingo det  
 Zugatik beti galdeera.

Agur amacho laztan, eztiya,  
 Agur nere Donostiya,  
 Agur Koncha ta Zurriola-ko  
 Ondartz-urrezko garbiya,  
 Agur eleizak, kale ta plaza  
 Mendiyak ta baserriya,  
 Agur Donosti ederren jiran  
 Daguén guzti guztiya.

RAMON INZAGARAY-KOAK.

